


• MATTIN •



Gure gazteria borrokalaria

• XABI LARRALDE •

[ABERTZALEEN BATASUNEO KIDEA]

Aste huntan ospatzen diren gazte topaketak, azken urteetako gertakari nagusi bat bezala kontsideratu behar dira dudarik gabe.

Gazteriak-Jarrai gazte erakundeak batzea, urte luzeetan Ezker Abertzaleak berak garatu duen ildo estrategiko baten bukaera suposatzen du estrukturaliki: lurralde zatiketaren gainean oinarrituriko ildo estrategikoa alegia.

Ildo horrek sekulako ondorioak izan ditu (irauten dutenak oraindik-orain) Iparraldeko mugimendu abertzalean. Izan ere, fronte batua/frente bakarraren inguruko eztabaidak (lurralde zatiketaren oinarrituriko estrategiari zuzenean lotua zena) sortutako zatiketak oso bortizki bizitu dituzte Iparraldeko abertzaleek, eta horrek ene iduriko parte haundi batez esplikatzen du egungo abertzale mugimendu politikoaren ahulezia bi arrazoin nagusiengatik.

Alde batetik, eztabaida horrek hainbat militanterengan sorturiko erredurak ikaragarritzkoak dira. Gure aita eta amen belaunaldiko militante balios horien artean zenbat ez dira gelditzen inplikazio politiko zehatzik gabe egungo egunean?

Bestetik, Iparraldeko abertzaleen artean enfrentamendu giro bat sortuz eztabaida horrek sistematikoki estali edo kutsatu ditu bestalako eztabaidak, besteak beste praktika politikoa eta urrats taktikoen ingurukoa. Ez da kasualitatea aste huntan Kanbon emaiten den gisa hortako urratsa, abertzaleen arteko gatazka guzi horiek bizitu ez dituen Iparraldeko gazte belaunaldi batek ematen baldin badu. Bainan, azpimarratu behar da halere, 90. harmaka-

dan Ezker Abertzalearen koordinaketaren (HB-EMA-EB-HA) esperientziarekin urrats inportanteak eman zirela zentzu hortan. Lurraldetasunari begira eraikuntza nazionalaren aldeko parioarekin Ezker Abertzaleak eman duen estrategia aldaketa ez da gaurkoa beraz. Ez da gaurkoa eta bere gauza-pena ez da hain ebidentea eta hain erretxa izanen. Zeren nahi ala ez, Iparraldeko eta Hegoaldeko gizar-teak arrunt gizarte desberdinak dira. Eta gazte antolakunde berriaren erronka nagusietariko bat da, Euskal Herriaren ainiztasuna behar den bezala kondutan hartzen duen praktika militante eraginkor baten finkatzea.

Hori dela eta, "Zazpiak bat" abiapundutzat eta ez emaitzat hartzen duen burujabetasunaren erdiesteko estrategia hori egokia iduritzen zait. Estatu frantses eta espainolek abertzaleen kontra aspaldidanik (eta hor data bat finkatzekotan nik, 83-ko lehen estradi-zioak aipatuko nituzke) gauzatua duten kolaborazio polizial eta politikoari erantzuten dio. Bainan estrategia politiko baten egokitasuna ezin da bakarrik neurtu erantzun modu batean; hau da etsaiak ematen dituen mugimenduen arabera soilik.

Kondutan hartzekoak dira ere geroari begira aurreikusten diren ingurumenaren aldaketak. Euskal Herriaren kasuan guziz kondutan hartzeko den aldaketa nagusi bat da enetako, Europar Batasunaren eraketa prozesua. Pertsonalki, eraketa hori gidatzen duen ikuspegi neoliberal (monetarista) arbuatzen dut. Bainan hala eta guziz ere prozesu horrek dituen bi ondorio nagusiekin jakatu behar dugu.

Lehenik, Euskal Herriko lurraldeen integrazioa bultzatzen du. Horren beldurra du Sanz batek adibidez; eta Baxe-Nafarroatik pasarazi nahi lukeen autopistaren egitasmoarekin bilatzen duena da, Europar Batasunaren eraketa prozesua dela eta Nafarroa Baskongadasetatik deskonektatzea berandu gabe.

Gisa berean diru berdinarekin (euroa alegia) funtzionatzeak zer suposatuko duen Iparralde eta Hegoaldearen arteko harremanen indartzearentzat ez dugu oraindik ongi neurtzen. Prozesu horrek bigarrenik, Estado-Nazioen eredu zaharra kolokan jartzen du. Momentukotz europar batasunaren zutabe nagusia, diru politika da. Bainan goiz ala berant politika horrek, ekonomia politika orokor eta integratu bat suposatuko du, eta hortarako Europa mailako egiazko podere politiko bat baitezpadakoa bilakatuko da. Gaur egun Iparraldean bizi den espainol 'nazionalitatea' duen lagun batek, hemengo herri hauteskundeetan parte har dezake, bozkatuz eta bere burua aurkeztuz zerrenda batean. Maila hortan ere egon daitezkeen aldaketak ez ditugu oraindik ongi neurtzen, eta nihau datozen hamar-hogoi urteetan herritartasunaren kontzepzioa erabat aldatuko dela konbentzitua naiz.

Sakoneko mugimendu guzi horien testuinguruan eta eraikuntza nazionalaren estrategiaren ildoan gazteria dugu beti bezala aintzindari. Dudarik ez frantses eta espainol estatu zapaltzaileen mugen gainetik gazte mugimendua bateratu duen militante belaunaldi horrek amesten dugun Euskal Herri batu eta euskalduna ikusiko duela.

••• MARIBI UNAMUNO

Memoria



Pasa den apirilaren hamahiruan, gauean berandu samar, *Libertarias* filma izan zen ikusgai telebistan; bertan CNTko kide zenbaiten 36-39ko gerra garaiko gora beherak antzezten dira eta kontakizuna garatu ahala, pare bat datu deigarri jaso ahal izan nituen.

Hizkuntzak gizakion memoria gorde eta transmititzen duela baieztatzeak aukera izan zen lehena. Filmeko pertsonaietarikoa batek Mateo Morral izena aipatu zuenean, batek daki zenbat denboran gordeta izandakoa aktibatu zidan, lehenengo harridura sortuz eta ondoren jakinmina biztuz. Benetako pertsonaren izena ete zen, bada, hori? Entzun izan dugu inoiz edo behin mutikoren bat ganora eskasean edo purementu gutxiarekin dabilela esateko: «Hi haz hi mationmoral» esaten. Inguruko hiztegi entziklopediko bizi partikularretara joaz, ondokoa esan didate: «Bada, trauskila edo denari deitzen zaio holan». Ondoren beste hiztegi entziklopediko teknikoago eta teorikoki objektibo baina praktikoki ez hain objektibo batera jo eta bertan aurkitu dut 1880an Sabadellen jaiotako anarkista izan zela, zeinak, Alfonso XIII.aren ezkontzan bonba bota ondoren atxilotu zutenean, bere burua hil zuen. Hara, informazio hau ez dator trauskila izatearekin bat; hizkuntzak datua eta interpretazio ideologikoa ekarri dizkigu ia ehun urte beranduagora arte.

Aipatu filmaren amaieran, Bartzelonatik Zaragozara bitartean omen den San Roman herrian zegoen anarkista taldea, honen barne frontearen zebiltzan emakumeak, mairuek ezustean harrapatu, bortxatu eta akabatu egin zituztela ikusten da. Hauxe bigarren datu deigarria, orduantxe ulertu bainuen behin amak esan ziguna, hau da, esaten zela mairuek neska gazteak lehenengo apurtu eta gero hil egiten zituztela eta horregatik, bazetoztela entzutean, herriko neska sasoikoak, bildurturik, ahal zuten lekuetan ezkutatuta egoten zirela.

Memoriaren erpeek gure biziaren iraupenak baino alkantzu luzeagoa dute. Adinean aurrera egin ahala, aitzitik garaiak urrundu barik, hurbildu egiten zaizkigula eta gaitasun handiagoko dugula dirudi iraganeko gertakizunak zein bizipenak, larogaitzak urteak direla gertatutakoak izanda ere, hobeto ulertzeko.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Arazoez

■ Arrazoi du Manuel Zorrillak, EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakariak, Justizia euskalduntzearen arazoa faltsua dela dioenean. Ez dago arazorik, ergo faltsua da. Arazoa Justizia Administrazioa goazen euskaldunok daukagu. Eta daukagun arazoa hori da: eurak ez direla ohartu ere egiten. Zorrillak dio abian diren egitarauarekin «neurritz kanpoko kezka» gainditu egingo dela. Badaki, ondo asko, gezurra dena. Egun abian diren egitarauak astogorotza baino gutxiago balio dute, eta nahikoa da justizia jauregi eta etxolekara txango kokorra egitea horretaz konturatzeko. Zer esanik ez Ipar Euskal Herrian edo Nafarroan, non epaitegiak *euskara ikastera* joaten hastea baino ez zaigun falta Sanzek bere boto-emailen zerrenda postaz guztioi etxera igor diezagun. Justizia euskalduntzea ez da arazoa; justizia administrazioa bera da arazoa.